


Ezpalak

JON TORNER

Juan Ramon Makuso

idazle errenteriarak *Oraina Galdua* liburua (Erein) plazaratu du. Egileak azaldu duenez, saiakera poetiko literario filosofikoa da. Erein argitaletxeak Pello Lizarralde zumarragarren *Iragaitzaz -ilunbistan-* eleberrira ere aurkeztu du.



Sara Santos en argazkiak, Maria Jose Altolagireren margolanak eta Louis Lopezen margolan eta eskulturak bildu dituzte Donostiako Kutxa Boulevard aretoetan. Hiru erakusketak hilaren 8a arte izango dira ikusgai.



Donostian egingo da Haur eta Gazte Literaturako Iberiar Biltzarra

HAUR ETA GAZTE LITERATURAKO IV. IBERIAR BILTZARRA Donostiako



Miramar Jauregian egingo da uztailaren 3tik 5era bitartean, *Desberdin irakurritz: Haur eta gazte liburua kultura aniztasunean* lelopean. Espainiako Haur Liburu-en Erakundeak (OEPLI) antolatuta ohi du, lekuan lekuko elkarte federatuekin batera. Horien artean dago Galtzagorri, Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak. Ponentziak, hitzaldiak eta eztabaidak izango dira egitarauaren ardatz. Parte hartuko duten idazle eta adituen artean Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta, Karen Sands, Veljka Ruzika, Elisa Bonilla, Pedro Cerrillo eta Felix Etxeberria daude. Egitarau osoa eta izena emateko inprimakia www.desberdin-irakurritz.com webgunean dituzue.

Zabalik dago Lekuz Leku lehiaketan parte hartzeko epea

EKAINAREN 25EAN amaituko da Bilboko *Lekuz Leku Hiria-Dantza-Bideoa* lehiaketan izena emateko epea. Laugarren edizioa ekainaren 26tik 28ra bitartean egingo da Abandoibarran. Bilboko Dantza Jaialdia egun horietan egingo da, eta *Lekuz Leku* lehiaketako parte hartzaileek dantza ikuskizunak bideoz grabatzeko aukera izango dute. 600, 1.000 eta 2.000 euroko sariak banatuko dituzte. Informazio gehiago: www.lekuzleku.com.

Uda 08
Gabriel Aresti euskaltegia*

Eskaintza zabala

- * Bametegiak Bilbo eta Bakailun
- * Ikastaro trinkoak 3 eta 5 ordukoak
- * Autoikaskuntza
- * Tailerrak
- * Gaste zein heldu
- * Goizez eta arratsaldez
- * Hotails, abuztua eta iraila

25 urte!
www.gabrielaresti.com Elkartea
Done Bikendi 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - tel: 94 423 75 91

Patxi Gaztelumendi kazetari eta blogaria elkarrizketatu genuen ARGIA.COM-en: «Software askearen sozializazioa lortu behar dugu, eta euskararentzat tresnarik eraginkorra dela ulertarazi behar diegu aginte apurra duten guztiei. Irakasleei, ikastetxeetako arduradunei, elkarteetako liberatuei, formazioarekin kezka dutenei, agintariei, enpresa buruei... guztiei. Alfabetatze digitala behar du herri honek, euskalduntze alfabetatzearen fasea amaituta. Alfabetatzea 2.0».

Angel Illaramendi konpositoreak Berria: «Orkestra bat zertarako dago, apaingarri gisa? Bakarrik Brahms interpretatzeko? Denok ordaintzen dugun orkestra batek gauza berriak estreinatu beharko lituzke. Ondo dago lan klasikoak interpretatzea, nola ez? Baina, ezin dute horretan geratu bakarrik, eta kontua da oso-oso gutxi estreinatzen dela».